

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2023ko irailak 29 · 1284 zenbakia



FEMINISMOA BORROKATU ETA OSPATU

Toribio Etxebarria, 1



EUKI
inmobiliariak

20 urtetik gorako esperientzia
eskaintzen dizuegu
balorazioetan eta eraikinetako
salerosketa, alokairu eta
traspasorako bitartekotzan



API

bisitatu gure eskaintzak web-ean
www.euki.com

GALDETU: 943 20 03 58 / fincas@euki.com

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua. 943 12 73 50
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922 www.theleceer.com

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
HELBIDE BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriazacha.com 943 203 903

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

balta toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnua: 943 12 13 07 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnua. 943.120108
www.irazabal.net

PINTURAK

Tel. 667 54 89 16
KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Aurreko astean hitzaldia eman zuen UEUn, Markeskua Jauregian, Eneko Agirre irakasle eta informatikari eibartarrak. Hitzaldian GPT bezalako hizkuntza-ereduak nola eraikitzen diren eta euskaraz aritzea nola lortu aztertu zuen, ikerkuntza eta elkarlanaren beharra aipatuz



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

NALUA

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Hamarkada bat borrokan

Gogoratzen dugu nola hasi genuen 10 urteko abentura hau; beste gauza askoren artean, ilusioz gainezka. Bide zehatzik gabe, baina iparra argi, Andretxe zaharrea eraiki genuen lehenengo lubakia. Bertan erabaki genuen gure izaera definituko zuen izena: NALUA. Ilargian. Ilargia eta alua; alua eta gua. Izen aproposa, zalantzarik gabe. Horren ostean etorri zen herri feministagoa lortzeko bide-orria marraztea. Marraztu eta marraztu jardun dugu ordutik; zirriborro bat besteaeren gainean, baina beti irudi, forma eta kolore berriak gehituz eta zakarrontzira botatako ideiak birziklatuz.

Eta zer esan taldeaz... Batzuk joan eta beste batzuk etorri. Ateak beti zabalik izan arren, agian ez dugu lortu Nalua guztion neurria egokitutako babeslekua izatea. Puntu hau autokritikarako ere erabili nahi dugu eta baita eskerrak emateko ere: eskerrik asko lubakitik igaro zareten guztioi; denon artean eraiki dugu Nalua eta denon ekarpenak daude barru-barruan gordeta.

Kide gehiago edo gutxiago izan arren, ez dira gutxi urte hauetan egin ditugun kanpainak, ekintzak eta mobilizazioak. Eta ez dira gutxi horien ostean jaso ditugun erantzunak. Gogorak eta mingarriak batzuk; baina zoragarriak gehienak. Guztiek balio izan digute aurrera egiteko.

Bestetik, bidelagunei ere eskerrak eman nahi dizkiegu: Eibarko Gazte Mugimenduari, Eibarko emakume taldeei, Euskal Herriko talde feministei... Gure arteko sinergiak baliatzea garrantzitsua izan da biziraupenerako.

Kontrara, trabak eta zailtasunak jarri dizkigutenak ere izan dira, jakina; Eibarko Udala, esaterako. Adibide bat jartzearen, gure urteurren jaia Errebaleen ospatzeagatik 2.000 euro kobratu nahi izan dizkigute. Politika berdinzailea, inklusiboa eta gertukoa, ezta?

Oztopoak oztopo, hamar urteren ostean harro gaude; harro gutaz eta egin dugun guztiaz. Ziur gaude, apurka-apurka abiapuntuan definitutako asmoa betetzen ari garela. Gora borroka feminista eta gora Nalua!

Nalua Eibarko Talde Feminista

Hortik esanak



Inork ez du esan euskarak ez duela balio, baizik eta kaltegarria dela, are konstituzioaren kontrakoa, hizkuntza hau legebiltzarrean erabiltzea. Eta gainera, garestia dela edo estetikaren kontrakoa direla itzulpenarako entzungailuak. Eta guztiok, bihartik aurrera, ingelesez egingo bagenu? Seguru hemengo erdaldun guztiek hitz gehiago dakizkitela ingelesez euskaraz baino. Beraz, ez litzateke hain zaila izango eta akabo itzultzaileak, entzungailuak eta gainerako guztia.

ARANTXA URRETABIZKAIA, idazlea

Euskara normalizatzeo politikak inposizio moduan erabili dira askotan. Uste dut pertsona askori euskararen kontrako jarrera eragin diotela, eta hori izugarri kaltegarria izan da euskararentzat. Horri buruz gogoeta egin behar dugu. Azterketa sakon bat behar dugu eraginkortasunaren inguruan. Eskubide linguistikoak bermatu behar badira ere, uste dut malgutasuna behar dela hizkuntza eskakizunetan, hor eraginkorragoa ikusten dudalako hizkuntza eskakizun mistoen ibilbidea.

ENEKO ANDUEZA, PSE-EEko idazkari nagusia

Gaztelera ofiziala dugu; euskara, katalana eta galiziera ere bai. Horixe dio Espainiako Konstituzioak: "Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan berauen estatutuei dagozkien eran". Ofizialak. Hala ere, koofizialak deitzen diete. Zertarako? Maila baxuago batean jartzeko edo. Aproba egin: esan euskara ofiziala dela EAEn; eta espainiera, koofiziala. Nola jotzen du belarrin? Eta inportanteena: nola erreazionatuko luke espainiar batek hori entzunda?

JOSE MARI PASTOR, zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ORDUBI-ORDUBIXAK → Ordubiak puntuan. "Ordubietan etortzeko esan, eta hantxe agertu zan ordubi-ordubixetan, zein-da alemana balitz moduan".

ORDUKO → Sasoi hartakoa. "Orduko lagunak ondo goguan dittut urtiak juan arren". Une hartarako. "Orduko karrera amaituta eukan".

Bezain laster. "Gure andriak alfonbra barrixa erosi jok -esan eban etxian sartu orduko".



Idurre Iriondo

Farmaziak

- BARIXAKUA 29**
- EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
- ZAPATUA 30**
- EGUNEZ | Iraundegi** (Calbeton, 19)
- DOMEKA 1**
- EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ASTELEHENA 2**
- EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
- MARTITZENA 3**
- EGUNEZ | Zulueta** (San Agustín, 5)
- EGUAZTENA 4**
- EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
- EGUENA 5**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- BARIXAKUA 6**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)

- GAUEZ BETI, 2023an,**
Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

| | |
|--------------------------|-----------------------------|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udalzaingoa | 943 70 84 24 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Kirol Patronatoa | 943 20 32 40 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 900 17 11 71 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Eibar Ospitalea | 943 03 29 00 |
| Mendaro ospitala | 943 03 28 00 |
| Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Torrekoa | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 944 33 33 33 |
| Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| Pesa | 900 12 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea | 943 70 08 28 |
| Alkohol. Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon / Alateen | 650 26 59 63 |
| Grupo Egun Bat (Jokozale | |
| Anonimo eta Familiak) | 699 37 75 20 |

Hildakoak

- **Miren Garmendia Eskisabel**. 89 urte. 2023-09-21.
- **Jose Perez Cid**. 75 urte. 2023-09-21.
- **Angeles Mintxinela Blasco**. 87 urte. 2023-09-22.
- **Luis Maria Telleria Basauri**. 88 urte. 2023-09-22.
- **Blanca Isabel Triviño Acosta**. 60 urte. 2023-09-24.
- **Jose Andres Aldazabal Zulaika**. 77 urte. 2023-09-25.
- **Clemente Zenigaonaindia Badiola**. 82 urte. 2023-09-26.

Jaiotakoak

- **Unax Barrios Camarzana**. 2023-09-09.



Beistegui Hermanos enpresak Urkizuko bi eraikinak erabili zituen bizikletak egiteko. Argazkian, eskuman, zabaldu zuten lehen lantegia daukazue. 1951n eraiki zuten bigarrena.

Beistegui Hermanos eraikinari eta bere arkitektoari aitortpena

Astelehenean, 16:30ean, Arragueta kaleko 20. zenbakian dagoen Beistegui Hermanos (BH) eraikina aintzatesteko ekitaldi xumea egingo da eta, horrekin batera, omenaldi txiki bat egingo zaio proiektua egin zuen Ramon Martiarena Laskurain arkitektoari, bere oroimenezko plaka jarrita. Kezka taldeko dantzariak ere hartuko dute parte.

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoarekin (EHAEO Gipuzkoa) batera aritu den Docomomo Iberico fundazioaren ekimenez egingo da aitortpena eta, argitu dutenez, “aintzatespena izango da, ez katalogazioa, horrek beste prozesu eta izapide bat eskatuko lukeelako”.

Bizikleten fabrikazioari lotuta dagoen BH eraikina 1951n eraiki zen, Arragueta eta Bidebarrieta kaleek bat egiten duten tokian. Ekimena bultzatu dutenen artean Joseba Arantzabal arkitekto eibar-



tarra dago eta, berak azaldu digunez, “Eibarren BHk eraiki zuen bigarren eraikina da, eta oraindik zutik dagoen BHren lehen eraikinetik gertu jaso zuten. BHren lehen eraikina izandakoan, besteak beste, Kutxabank eta Eroski daude gaur egun”.

Arkitektoen aitortpena jasoko duen eraikinean bizikletak egin ziren, 1960. urte inguruan enpresak Gasteizera joatea erabaki arte. Handik gutxira, 1963an, Leonardo Azpirik erosi zuen, eraikuntza eta iturgintzarako materialen biltegi gisa erabiltzeko. Hala egin zuen, 90. hamarkadan Matsariara lekuz aldatu arte. Horren ondoren, etxebizitzak egiteko moldatu zuten eraikina (2003-2005 urteetan).

Arkitektoen arabera, “BH tamaina eta balio handiko eraikina da. Hormigoi armatuz eraikita dago eta, Ego ibaiaren bi gangen gainean eta trafikiko handiko bi kaleren artean egon arren, dotorezia eta traza zuzen modernistekin erantzun dio bere kokapen horri. Nabarmentzekoak dira azken solairuko terrazak dituen atzeraemangune jarraitua eta leiho horizontalen lerro ederra”.

Eibarren bi eraikin gehiago

Jose Ramon Martiarena Laskurain arkitektoa Zumaian jaio zen, 1898an. Titulua Madrilan lortu zuen 1924an, eta 1925ean Sorian zegoen jada, udal-arkitekto gisa lanean. Aldi berean, enkargu partikularrak ere egiten zituen. Han aritu zen lanean, 1942an Gipuzkoako Etxeko Lan Sindikalaren arkitekto-aholkulari izendatu zuten arte. Donostian hil zen 1966an. Eibarren, Cadenas Iris (Iparragirre, 2) eta Arane kaleko 15. zenbakian dagoen eraikina ere (lehengo Ojmar, Pampo gaur egun) Martiarenak egindakoak dira.

AUTUAN

1958koen BAZKARIRAKO IZEN-EMATEA IXTEAR

Aurten 65 urte bete edo beteko dituztenek urriaren 28an ospatuko dute kintada-jaiak. 13:00etan Untzagan elkartu eta argazkia egingo dute. Bazkaria, berriz, Untzaga Plaza hotelean izango da. Joan nahi dutenek 90 euro sartu beharko dute Laboral Kutxako ES71 3035 0023 96 0231166694 kontuan, izen-abizenak ipinita (urriaren 15a baino lehen).



1980an JAIOTAKOEN JAI

1980an jaiotakoek jaiak azaroaren 4an izango da. Joan nahi dutenek 100 euro sartu beharko dute, Rural Kutxako ES04 3008 0171 66 4969109729 kontuan, kontzeptuan izen-abizenak ipinita. Transferentzia lehenbailehen egitea komeni da, toki-muga dagoelako. Zalantzak argitzeko naiara_05@hotmail.com helbidera idatzi.



Munduari Kolorea Ematen elkarteak janari-bilketa egingo du gaur eta bihar Untzagan

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak laguntzeko janari-bilketa antolatuko dute Munduari Kolorea Ematen GKEko kideek, gaurko eta biharko. Iaz egin zuten bezala, aurten ere Untzagan egongo dira egun bietan, jendeak eman nahi duen janaria biltzen. Horrekin batera, tonbola, jokoak eta beste hainbat ekintza osagarri prestatu dituzte. Proiektua orain dela bi urte sortu zen, La Salleko lau ikasleren (Maitane, Amaia, Malen eta Ane) eskutik, familia

askori eragiten zien elikadura-krisi gero eta handiagoak hunkituta. Gelakoei laguntza eskatu eta gero, gaur egun 15 lagun inguru ari dira elkarrekin. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da eta iazko marka gaintu nahi dute: "Iaz 1.214 kilo elikagai jaso genuen, eta janaria Bergarako Elikagaien Bankuan entregatu genuen. Aurten, helburua kopurua hori bikoiztea da. Beraz, herritarrei dei egin nahi diegu parte hartzeko".

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

ESCUELA OFICIAL DE IDIOMAS DE EIBAR

DEUTSCH-ENGLISH-EUSKARA-FRANÇAIS

Ikasturte osoaren prezioa: **72,36 €**

Agiri ofiziala eskura ezazul

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA

Matrikula zabalik

On-line **IKASGUNE** plataformaren bitartez





Osoala hiribidea 29
eoleibarheo@gmail.com
943 89 92 73

@eoleibarheo

www.eoleibarheo.hezkuntza.net





Mundu osoko 200 adituk hartuko du parte PloneConf 2023 konferentzia teknologikoan

PloneConf 2023 Nazioarteko Konferentzia Teknologikoa hartuko du Eibarrek datorren astean, urriaren 2tik 8ra. Interneten software librearekin edukiak kudeatzeko sistema eleanitzen Nazioarteko Konferentzia nagusia izango da Eibarkoa eta CodeSyntax eta Software libreko Plone Foundation-ek antolatu dute, Eibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritza-SPRIren babesarekin.

Atzo goizean egin zuten aurkezpena antolatzaileek eta, azaldutakoari jarraituz, “30 herrialde ezberdinetatik etorritako 200 aditu eta erabiltzailek hartuko dute parte. Eta beste hainbestek online jarraituko dute”. Egitasmoak irauten duen zazpi egunetan, formakuntza ikastaroak oinarri izango dituzten bi egun egongo dira, hitzaldiatarako beste hiru, eta garapen teknologiko esprintak egiteko beste bi egun. Antolatzaileen berbetan, “prestakuntza-saioak 8 nazionalitateko 11 prestakuntzaile profesional adituk eskainiko dituzte. Saio

horiek guztiak interesa dutenei irekita daude, eta hasiberriei zein garatzaile aurreratuei zuzendutako zortzi trebakuntza profesional biltzen dituzte. Konferentzien egitarauak, aldiz, 60 hitzaldi inguru jasotzen ditu eta 2-3 track paralelotan egingo dira, Coliseo antzokiko areto nagusian eta ondoko beste bi aretoetan”.

Euskarazko saioa prestatu dute datorren barixakurako

Konferentzia ingelesez egingo bada ere, datorren barixaku goizerako euskarazko saioa prestatu du CodeSyntax-ek: “Eleaniztasuna eta malgutasuna CMSetan”. Bertan ULMA Construction, ULMA Packaging, Kitconcept GmbH, EKE Euskal Kultur Erakundea, UEU Udako Euskal Unibertsitatea, Copernicus EEA Europako Ingurugiro Agentzia... eta beste batzuk hartuko dute parte.

Konferentziari buruzko informazio guztia, egitaraua barne, <https://2023.ploneconf.org/> webgan da.

Herriko jaien inguruko hausnarketa sakona egitea eskatu du EH Bilduk

Agintaldi berriarekin batera eratu den Jaien Batzordearen jarduna kritikatu du EH Bilduk, “San Juan eta Arrateko jaien baloraziorik” ez egiteaz gain, Arrateko jaietarako autobus zerbitzua antolatzeke moduarengatik. Bilduren arabera, batzordea “behin bakarrik” bildu da. Gainera, sanjuanetako programazioak eguneraketa bat behar duela uste dute: “380.000 euroko aurrekontua duten sanjuanek ez dute hausnarketarik merezi? Adin tarte guztien beharrak daude jasota?”. Bestalde, egin den bilera bakar horretan, Arrate egunerako ere gaueko autobus zerbitzua eskatu zuten, “barixakua izan arren PSEk ez zuelako aurreikusita. Aztertuko zutela erantzun eta gero, komunikabideen bitartez izan genuen zerbitzuaren eta ordutegiaren berri”.



Argi gehiago jarriko dituzte bidegorrian

Aste honetan bertan hasi dira Eibar eta Elgoibar arteko bidegorrian argi gehiago instalatzeko lanak. Obrak 600.000 euroko kostua du eta lau hilabete beharko dituzte gauzatzeke. Ekimen honen bitartez erabiltzaileen segurtasuna bermatu nahi dute, gune argitsuagoak ezarri eta “puntu-beltzak” saihestuta.



Adineko pertsonen eskubideen aldeko manifestazioa egingo da astelehenean

Urriaren lehena Pertsona Nagusien Nazioarteko eguna dela, astelehenean manifestazioa egingo da, 12:00etan Untzagatik irtenda. Eibarko Pentsionisten Taldetik adierazi dutenez, “kalera irtengo gara berriro, adineko gisa dagozkigun eskubideak eskatzeko. Bizi-baldintza duinak izateko eskubidea dugu, pensio publiko duinekin, zerbitzu publiko unibertsalekin, eta gure arreta-beharrak beteko dituen zaintza-sistema publikoarekin”. Gogora ekarri dutenez, Euskal Herrian 200.000

pentsiodun baino gehiago 1.080 eurotik beherako pensioekin bizi dira. Pentsiodunen mugimendua, egoitzetako erabiltzaileen senideen elkarteekin batera, kalera irtengo da, egoitza gehienetan bizi duten egoera negargarria salatzeko. Gainera, EAEko eta Nafarroako gobernuei mendekotasuna artatzeko sistema publiko bat garatzea eskatuko dute, baita EAEn egoitzen dekretuaren zirriborroa aldatzea ere, “elkarriketaren eta gizarte-eragileen parte-hartzearen bidez”.

Dendariak arreta handiz entzun zituzten Estitxu Garairen azalpenak

Eibar Merkataritza Gune Irekiak, Eibarko Dendarien Elkarteak, Gipuzkoako Merkataritza Federazioak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta Eibarko Udalak antolatuta, “Gehiago eta hobeto saldu. Brandingeko oinarrizko ikasgaiak” hitzaldia eman du aste honetan Estitxu Garai irakasleak Errebalean. Eibarko merkatarientzat bereziki antolatutako doako saioak dendari asko bildu zituen eta, besteak beste, komertzioak salmenta modu berrietara egokitzeko dauden tresnak eta baliabideak azaldu zizkien.



Asteburu honetan eta hurrengoan ospatuko dira sanmiguelak Aginaga auzoan

Atzo hasi ziren Aginaga auzoko jaiak, baina ekitaldi gehienak asteburu honetan eta hurrengoan izango dira. Gaur San Miguel eguna dela eta, goizean meza nagusia ospatu dute, Usartza txistulari taldearen eta Eibarko Koro Parrokialaren parte-hartzearekin. Hamaitakoa jan eta umeendako jolasak egin ondoren, herri-bazkariarekin biribilduko dute eguna. Jai-egitarauak datorren zapatuan jarraitu-

ko du: 17:00etan briska txapelketa egingo da; 21:00etan lagunarteko afaria (Ixua jatetxean eman behar da izena); eta 23:00etan erromeria hasiko da, Joselu Anaiak taldearekin.

Jaiak domekan, urriaren 8an, agurtuko dituzte, baina aurretik meza (11:00etan), hamarretakoa, umeentzako jolasak, paella-jana herrikoia eta zozketa egingo dira, besteak beste.



Robertoren aita Markinatik Eibarrera bizitzera etorri eta Calbeton kalean zegoen ikaztegi batean hasi zen lanean, egurra eta ikatza banatzen, zaldiz tiratutako gurdi batean. Produktu zein merkatuaren arabera egokitzen jakin zuen, baita bere semeek ere (Jose Mari eta Roberto anaia). Zabaletarren negozioari 'Katillunekoak' deitzen zioten, Pedro jaio zen baserriaren izena laburtuz.

Anekdota bat kontatzen du, zahartzaroz.

“Pezetiari hiru errial janda” esaera

Roberto Zabaleta Ozamiz
(1934 – 2022)



Eibarko Isasi kalean jaioa, bere izen-abizenetatik baino gaitzizenetik ezagunagoa: *Katillu*, bere amandarearen Markinako baserriaren gomutaz. Aita Pedoren egur eta ikatz jarduerari jarraipena emanez, anaia Jose Mari eta beste pare bat soziorekin garraio eta garabien "Grúas Katillu" enpresa jarri zuten, Isasi barrenean lehenengo eta Olarreagan gero; bertan jardun zuen harik eta erretiroa hartu zuen arte.

Roberto Zabaletari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Gu Manuelenera 25 urtekin juaten giñanian txuletia jatera, zaharrak egoten ziran han, mahai biribillian, baso haundixekin ta, “Hi, Katillu!”, zaharrak, gaur, oin nik dakaten edadia... Ta, “*Guk pezetiari hiru errial janda gaonaz!*”. Harek, eh, orduan, ta norberak 25 urte. Ze esan ete nahi dau honek? Ta, norberak igerrri baiño lehenago, harek bai egixa. Harek bai egixa! Edadiagaittik, ez dakizu? [Pezetiari hiru errial janda...] Pezetiari ya erriala gelditzen jakola [Aittuta] Bizimoduan. Hori norberari etorri jako oin hori. Hori sekula ez jata ahaztuko neri. Hori Manuelenian. *Hi, pezetiari hiru errial janda gaonaz gu, eh!* Ta, tak, oin norberari hori.

Euskaraz dastatuko dugu aurten ere Sagardo Egunean

Ohiturari jarraituz, urriaren lehenengo zapatuan -hau da, hilaren 7an- egingo da Untzagan ...eta kitto!-k antolatutako Sagardo Eguna. Azken urteetakoei jarraituz, goiz eta arratsaldeko saioetan banatuko da 28. edizio hau ere: eguerdiko 12:00etatik 14:30era arte lehenengoa eta 19:00etan hasi eta sagardoa agortu arte bazkal ostekoa.

Iaztik abiatutako bidetik, aurten ere hiru tiket mota salduko dira: berdeak (edalontzia + zapia + pintxo), 10 eurotan; urdinak (kopa + zapia + pintxo), 12 eurotan; eta horiak (pintxo), betiko prezioan, 2 eurotan. Antolatzailleek dioten bezala, "koparena gero eta zabalduago dago, Donostiako azken Sagardo Egunean ere ikusi zen, eta sagardogileek euren proposatutakoa izan da". Berritasun moduan, aurten edalontziak jasotzeko mahai bat egongo dela diote elkartetik: "Gu arduratuko gara bildu eta behar bezala birziklatzeaz".

Iazko edizioan bezala, aurten ere 13 sagardotegik hartuko dute parte Eibarko Sagardo Egunean, Euskal Sagardoa elkartearen partaideak guztiak: Alorrenea, Altuna, Altzuetta, Astarbe, Barkaiztegi, Begiristain, Bereziartua, Gartziategi, Gaztañaga, Lizeaga, Olaizola, Sarasola eta Zelaia. Guztira, 2.340 botila zabalduko dira. Batzuen besoei igarriko dute, bai, trajin hori: "70 lagun inguru mugitzen dugu egun horretan".

Goizeko saioa eguerdiko 12:00etan zabalduko da eta, txotx! egitearekin batera, euskaltzale-tasunari eskainitako saria jasoko



Bi milatik gora botila zabalduko dira urriaren 7ko Sagardo Egunean.

du Marisol Arrillaga trikitilariak: "Beti eskuzabal jokatu du gurekin eta lagun izan dugu, ez Sagardo Egunean bakarrik, baita Santaeskean ere, Euskararen Egunean...", diote antolatzailleek. Haren taldekoek eta KIMUko txalapatariak girotuko dute eguerdia. Gainera, sagardoa egiteko prozesua bertatik bertara ezagutu nahi duenak dolarea izango du ikusgai, kirikoketarekin sagarrak txikitzeo aukera izango baita.

Egunaren bigarren zatian, arratsaldekoan, luxuzko asteburuaren zozketa egingo da "tiket-salmenta puntuan, 20:00 bueltan". Rifak salgai daude oraindik ere euro batean hainbat tokitan eta egun horretan ere han izango dira, azken aukera hori aprobetxatu nahi duenarentzat. Oraingoan asteburu hori Donostian izango da: Hotel Londresen bi lagunentzako gaua, afaria eta armosua eta Arima Hotel & Spa-n 90 minutuko spa eta bazkaria.



“Eibarren ospatzen diren jai garrantzitsu guztietan abesten dugu beti”

AMAIA ALDAZABAL ETA JOSEFINA PEREDA • Koro Parrokialeko kideak



Badira berrogehi urte baino gehiago Eibarren Koro Parrokiala eratu zutela. Harrezkero, beti aritu dira kantuan, gure herriko jai garrantzitsuenetan beti, baita beste egun batzuetan ere. Azkenengoz Arrate egunean, Meza Nagusian entzun genituen kantuan. Hurrengo hitzordua, berriz, Aginaga auzoko sanmigeletan daukate, gaurko meza nagusian.

Elkarrizketaren BIDEOA



Urteetako historia luzea duen arren, Eibar-ko Koro Parrokiala beste abesbatzak baino askoz gutxiago ezagutzen da herrian. Behintzat, hala sentitzen dute taldean dauden andra-gizonek. Hala era, koroko kide askok urteak daramatzate kantuan, eta musika ikasketak egin dituztenak ere badaude taldean. Arrate Larrañaga da zuzendaria, eta berak ezin duenean Amaia Aldazabalek ordezkatzeko du.

Noiztik dago Koro Parrokiala Eibarren? Noiz hasi zirenetan zuek bertan kantatzen?

Hemen gaudenen artean, Amaiak darama urte gehien. Gutxi gorabehera, orain dela 40 bat urte sortu zela kalkulatu dugu, Arrate egun batean esan zuten sortu egin behar zela, eta horrela hasi zen.

Berez, San Andres parrokiako abesbatza zarete, ezta?

Bai, baina orain itxita dagoenez, San Agustin elizan egiten ditugu entseguak.

Urtean zehar, noiz abesten duzue?

Batez ere jai egun garrantzitsuenetan: sanandresetan,



sanjuanetan, Santa Zezilian, Arrate egunean, Gabonetan... herriko jaietan. Horrez gain, hileta-elizkizunetan ere abesten dugu. Eta ezkontzetan ere bai, norbaitek hala eskatuz gero. Gero, Santa Zezilian bazkaria egiten dugu, normala den moduan, gure patrioiaren eguna ospatzeko, eta kantatu ere egiten dugu.



Goian, koro parrokiala. Ezkerreko orrialdean, Amaia Aldazabal (ezkerrean) eta Josefina Pereda (eskuinean), taldeko beste kide batekin.

Nork zuzentzen zaituztete?

Arrate Larrañaga da zuzendaria, urte asko daramatza eta oso zuzendari ona da. Musika irakaslea izan zen Aldatze ikastetxean, eta gainera pianoa ere ikasi zuen, karrera dauka. Bestela, bera ez dagoenean, ni (Amaia) ibiltzen naiz zuzentzen, nik ere pianoa jotzen ikasi nuen-eta.

Zeintzuk osatzen duzue koroa?

35 bat andra-gizon gara, eta taldean sopranoak, kontraltoak, tenoreak... pixkat denetarik dago.

Zenbatero egiten dituzue entseguak?

Normalean astean birritan, martitzen eta eguetan. Ordu bete pasatxo aritzen gara egun bakoitzean. Horrez gain, taldearen Whatsappa ere badugu eta, horri eskerrak, zuzendariak bidaltzen dizkigun abestiak etxean ere praktikatzeko ditugu batzuetan.

Eta nolako kantuak izaten dira?

Elizan abesteko kantuak izaten dira batez ere. Baina, horrez gain, badauzkagu beste abesti batzuk euskaraz, errusieraz, latinez... baita alemanieraz ere. Baina batez ere erlijio-musika izaten da.

Abesbatza osatzen duzuen gehienak nagusiak izan arren, badaude gazteagoak diren batzuk...

Oro har, nagusiak gara. Gazte batzuk etorri izan dira, bai, baina badakizue zer gertatzen den: familia dela, edo seme-alabak direla... etortzei laga eta, azkenean, desagertu egiten dira.

Zuetariko batzuk Eibarren egon diren beste abesbatza batzuetan aritutakoak zarete, ezta?

Bai, batzuk Sostoaan abesten ibilitakoak dira, beste batzuk Goruntz abesbatzarekin, baina koro batzuk desagertu direnez, kide izandako batzuk Koro Parrokialera etorri dira.

Eta, kantatzen duzuenean, organoarekin laguntzen dizute beti?

Bai, beti-beti. Gainera oso organista onak dira eta San Andres elizako organoa zaharberritzeko lan handia egin zuten. Baina organoa zaharberritu eta, inaugurazioan kantatzeko dena prestatzen ari ginenean, sabaitik harri erori eta akabo. Pena handia hartu genuen, baina okerragoa ere izan zitekeen. Gure gainean ez zen erori eta denak conforme!

Euskarazko adimen artifiziala entrenatzeko testu masa erraldoiak behar dira

Adimen artifizialak euskararengan izango duen eraginaz eta ditugun errokez hitz egin zuen Eneko Agirre informatikari eibartarrak aurreko astean UEUren 2023/2024 ikasturtearen hasiera ekitaldian. Eneko Agirre Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle osoa eta Ixa Taldeko kidea da. Informatika Fakultatean lan egiten du 1988tik, Lengoaia eta Sistema Informatikoak sailean, eta euskararen prozesamendu automatikoa lantzen duen HiTZ zentroko zuzendaria da.

HiTZ erreferentziatzeko zentroa da Hizkuntza Teknologietan. Helburua du ikerketa, prestakuntza, transferentzia teknologikoa eta berrikuntza sustatzea hizkuntza eta ahotsa ardatz duten adimen artifizialean. Diziplina anitzeko taldea da: informatikariak, hizkuntzalariak eta ingeniariak. Ixa eta AhoLab ikerketa-taldeek osatzen dute HiTZ zentroa.

Chat GPT teknologiak bere sorkuntzatik harrিতuta utzi gaitu, komunikatzeko duen gaitasunagatik. Pantailaren bestaldean gizaki bat dagoela dirudi eta hori txundigarria bezain beldurgarria da. Eneko Agirrearen esanetan, "Chat GPT izan da inoiz egon den erabilera handiena lortu duen aplikazioa eta webgunea, egun gutxitan eta propaganda egin gabe. Jendea berehala hasi zen erabiltzen eta txundituta zegoen. Ikerlariontzako ere zaila izaten ari da aplikazioa lortzen ari den irismena ulertzea". Adimen artifizialaren kontua izkina guztietara iritsi dela dio Agirrek: "Dagoeneko ez da bakarrik laborategietan dagoen gauza bat, gizartean dago eta ezin da ukatu gauza kezkarriak egon badaudela".

GPT teknologia (Generative Pre-trained Transformer) adimen artifizialean oinarritutako hizkuntza-eredu mota bat da, OpenAik garatua. Teknologia hori giza testua modu koherentean ulertzeko

eta sortzeko duen gaitasunagatik nabarmentzen da. "Hizkuntza-eredu deitzen dira gai direlako hizkuntza probabilitateen edo hizkuntza batean gertatzen diren gauzen eredu matematiko bat egiteko", azaldu zuen Agirrek.

Adimen artifizialeko hizkuntza-ereduak sistema konputazionalak dira, giza hizkuntza modu naturalean ulertzeko eta sortzeko diseinatuak. Eredu horiek lengoaia naturalaren prozesamenduarekin lotutako aplikazio eta teknologia askoren funtsezko zati dira, eta aplikazio sorta zabala dute, laguntzaile birtualetatik hasi eta itzulpen automatikoetaraino, testuaren sorkuntza, testu-laburpena, txatbotak eta askoz gehiago.

Hurrengo hitza nola iragarri

Hizkuntza-ereduaren atzean dagoena zer den azaldu zuen Agirrek, "garrantzitsua delako nola funtzionatzen duen ezagutzea. Atzean dagoen ideia da makinari erakustea nola iragarri hurrengo hitza.

BIDEOA



"Mundua suntsitzean adimen artifizialak euskaraz egingo ote du?" hitzaldia eskaini zuen Eneko Agirre informatikari eibarrak UEUn.

Horretarako bi gauza behar dira: alde batetik, testu masa erraldoiak makinak entrenatzeko, irakasteko; eta sare neuronal berezi batzuk, bestetik. Guretzako hau oso aspergarria da, baina makinak pazientzia izugarria dauka. Oso sinplea dirudi, hurrengo hitza zein den asmatzearen jokoak dirudi, baina gauza asko jakin behar dira. Prozesu horretan, Interneteko testu ugarirekin elikatzen da sarea, eta aurreko hitzen sekuentzia baten arabera perpaus batean hurrengo hitza iragartzeko eskatzen zaio. Horrek aukera ematen dio GPT-ri gramatika, perpausen egitura, munduaren ezagutza orokorra eta lotura semantikoak ikasteko. Arazoa zein da? Testu masa handiak behar direla", dio ikerlariak.

Hala ere, makinek sortutakoaren atzean pertsonak daude beti –ezinbesteko duen datu-basea osatzen dabilzanak–. Robota nahiko adimentsu izateko bidean, oinarrian behar dituelako klikatzen, etiketatzen, esaldiak berridazten,

informazio sinpleak sortzen ariko diren pertsonak.

Marka guztiak hautsita

Agirrek dio izugarria dela, marka guztiak hautsi zituela GPTk: "Benetan ematen du pertsona bat dagoela atzean pentsatzen dituen gauzak esaten. Udaletxe bateko teknikari batek pliegoak idazteko Chat GPT erabiltzen duela badakit. Idazlanak, testu administratiboak, galdera-erantzunak, elkarrizketa sistemak (badago enpresa bat *pedido* osoak makina batekin egiten dituenak)... Eta hortik etorri da gauza asko pertsonak baino hobeto egiten dituela, akats gutxiagorekin. Gauza asko egiten ditu, egia da, baina mundua suntsitzerik ez dut ikusten (azkenaldian asko hitz egiten ari da ideia horretaz)".

Benetazko arriskuak

Sistema hauen erabilera asko hedatzen ari da eta errore asko egiten ditu. "Hain ondo idazten du ezen badirudi badakiela zer dioen. Ba,

"Benetan ematen du pertsona bat dagoela atzean pentsatzen dituen gauzak esaten"

"Gauza asko egiten ditu, baina mundua suntsitzerik ez dut ikusten"



UEUren 2023/2024 ikasturtearen hasiera ekitaldia egin zen aurreko astean Eibarren, unibertsitate, euskalgintza, administrazio eta UEUko komunitateko kideen aurrean. UEU

ez fidatu, ondo begiratu behar dira testu horiek. Eta badaude beste arazo batzuk: bazterketaren arazoa (genero edo arrazari dagozkionak esaterako), desinformazioaren hedapen masiboa, enpleguak ezabatzeko aukera, gizartearen eraldaketa (hezkuntza, adibidez), energiaren kontsumo altua... Eta ezin dugu ahaztu botere kontzentrazioa: oso enpresa gutxiren esku dago informazioarekin zerikusia daukan teknologiarik ahaltsuena. Gauza guzti horiek hor daude. Eta horregatik dago suntsiketarena, entretenitzeko eta horrelako gauzetaz gutxiago hitz egiteko".

Zer egin euskararentzako

"Nola erabaki dezakegu horrelako zerbait euskararentzako? Egin behar dugun bideak ezinbestean oinarritu behar du baliabide irekietan eta publikoetan", uste du eibartarrak. Geure tresna propioak garatu

"Euskarazko testu masa erraldoiak lortzeko administrazioaren eta enpresa pribatuen eskuzabaltasuna beharko dugu"

behar ditugula eta ikerlari gehiago behar direla dio Agirrek. "Konputazioan orain dela urte batzuk baino medio gehiago ditugu (Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak eman ditu), baina ez da nahikoa", dio.

Bestalde, egungo eta etorkizuneko teknologiek testuzko eta ahozko datu masa erraldoiak eskatzen dituzte hizkuntza bakoitzeko, eta, aldiz, euskarak eskaini ahal dituen datuak ez dira nahikoak teknologia horiei etekina ateratzeko, eta gailu horiek behar adina kalitate eskaintzeko. Enekok esan zuenez, "testu masa erraldoiak behar dira euskaraz, aplikazioek ondo funtzionatu dezaten. GPT 3k 500.000 milioi hitz ditu eta guk 1.000 aldiz

gutxiago. Testu asko lortu ditugu hainbat euskal hedabideetatik eta wikipediatik, baina hori gutxi da. Kalitate ona nahi badugu, gaztearen parekoa, behar dugu ekimen bat testu masa erraldoiak ekartzeko. Eta ekimen horretan administrazio eta enpresa pribatuen eskuzabaltasuna beharko dugu", esan zuen Enekok.

Beste aukera, multinazionalen zain egotea da. Baina, kasu horretan, "teknologiaren jabego eta kontrola non gelditzen da? Ez da hizkuntza kontua bakarrik, kultura ere bada. Azken finean hau wikipediaren parekoa izango da, jendeak zuzenean galdetuko dio sistema horri", dio ikertzaileak.

Andretxeak urteko azken hiruhilabetekoa ekintzez bete du

Aurreko asteko barixakuan aurkeztu zuten 2023ko azken hiru hilabeteetarako Andretxeak antolatu dituen tailer eta ikastaroen programazioa. Isasi kaleko bere egoitzan egingo dira ekimen horiek guztiak, eta bertan aurkeztu zituzten baita programazioaren nondik-norakoak ere, Jon Iraola alkateak eta Patricia Arrizabalaga Berdintasunaren zinegotziak eskainitako prentsaurrekoan. Gune feminista batean egiten diren jarduera horien helburua herritar guztiak berdintasunean heztea da, hausnarketaren eta parte-hartzearen bidez.

Tailer horiek momentu jakin batean egiten dira eta, aurkezpenean adierazitakoaren arabera, “une honetan inoiz baino beharrezkoagoa da elkartegintzako eta herritarren partaidetzako ingurune batean emakumeentzako lankidetzako, kulturantzako eta ahalduzko gune bati eustea”. Patricia Arrizabalagak tailer eta ikastaroetan parte hartzeri animatu zituen herritarrak, eta aukera aprobetxatu zuen dagoeneko askok eman dutela izena aurreratze-ko: “Tailer hauen arrakasta Eibarren eta gure inguruan dugun kontzientziario handiaren adibide argia dira. Horregatik, beharrezkoa da horrelakoak antolatzea eta herritarrengan kontzientzia kritiko eta feminista sustatzea, gure gizartean nagusi diren rol jakin batzuekin hautsi ahal izateko”.

Hala ere, ikastaro eta tailerretan parte hartzeko interesa izanez gero, ez galdu denborarik eta izena emaitze lehenbailehen, epea berez bihar amaitzekoa zelako. Hasieran, behintzat, irailaren 1etik 30era arteko tarte horretan ezarri baituzten aurrematrikula egiteko aukera. Horregatik, informazio gehiago nahi izanez gero, Andretxeako egoitzara jo dezakezue (Isasi kalea, 11), andretxea@eibar.eus helbidera idatzi edo, bestela, 943 543 938 edo 688 853 440 telefono zenbakietara deitu. Aurrematrikula egiteko, udalaren webgunean



Jon Iraola eta Patricia Arrizabalaga barixakuko aurkezpenean.

(www.eibar.eus), Andretxearen webgunean (www.eibar.eus/es/igualdad-andretxea), eta Andretxean bertan edo Pegoran eskuragarri dagoen formulario bat bete beharko duzue. Tailerretako batzuk euskaraz eta gaztelaniaz gozatu ahal izango dira egun desberdinetan, eta Eibarren erroldatutako emakumeek deskontua izango dute. Bestalde, programazio osoa Andretxearen webgunean bertan ikus daiteke.

Jarraian eskaintzen dizkizuegun ikastaro eta tailerretatik kanpo, Andretxeak emakumeen jabetzerako ahalduntzeko espazioak (taratean, "Harreman afektiboak tratu onak sustatzeko", "Empalabramiento: jabetzea bulztateko erderazko klaseak" eta "Gure burua maitatzen ikasten"), munduko emakumeen literaturazko saioak (urritik otsailera "Italiako emakumeen literatura") eta ezagutzak handitzeko saio irekiak eskaintzen ditu hilero.



Inguruko landareak

Tailer honetan inguruko udazkeneko landareak eta fruituak identifikatuko ditugu, landareen bilketa, propietateak eta erabilpenak landuz. Udazkena izanda, negurako prestatuko gara eta ezturen aurkako jarabe bat prestatuko dugu, baita indiar gaztainekin egindako estraktua ere.



Sasoiko sukaldaritza

Tailer honetan ikasiko dugu udazkeneko barazkiak prestatzen eta perretxikoekin, osoko zerealekin, landare-proteinekin, algekin eta abarrekin konbinatzen. Era berean, plateren ezaugarrientzako egokiak diren ebakitzeko eta egosteko teknikak ezagutuko ditugu, gure osasunarentzako ere onenak direnak.



Autozaintza emozionala

Gure gorputzak bidaltzen dizkigun seinaleak isilarazi ditugu. Tailer honetan gure emozioak ulertu eta landuko ditugu gorputzaren bizipenetik. Bertan gure nerbio sistema lasaitu eta orekatuko duten tresnak erabiliko ditugu. Ikastaroaren ostean zeuen burua zaintzeko eta sostengatzeko gai sentituko zarete.



Bizitarako mindfulness

Ikastaro honek gure bizitzak kudeatzen lagun dezaketen tresnak eskaintzen ditu, jakinik geure bizitzetan geuk agintzen dugula bizimodu oso eta kontzientea izatera iristeko. Konfiantzazko gune bat eskainiko da, gure barne-ahotsa adeitasunez eta erantzukizunez sentitu eta entzun ahal izateko.



Lurretik zaindu

Geure zaintza erdigunean jarrita, Lurretik jaso, Lurretik zaindu - Lurretik sendatzen errezeta-liburutik abiatuko gara. Liburuan min fisikoetarako, min emozionaletarako eta hileroko minetarako errezetak biltzen dira, bai eta garbiketa-produktuak egiteko errezetak ere, guztiak landare naturalekin sortuak.



Ziklikoki bizi taldean

Tailer honetan ziklikotasuna ikuspegi desberdinetatik lantzen da: gutxieneko ezagutza biologiko bartzuk sendotu edota ikastea, hilekoa kudeatzeko produktu desberdinen ezagutza eta erabileraren inguruko ezagutzak zabaldu eta sakontzea, autozaintza eta autoezagutzarako teknikak ikastearekin batera.

Emakumeen jabetzerako IKASTAROAK eta TAILERRAK

INGURUKO LANDAREAK EZAGUTU ETA ERABILIZ GURE MUNDUA HANDITZEN -zapatuetan-

Guztira 8 ordu (urriak 7 eta 21, euskaraz; urriak 14 eta 28, gaztelerez) / 10:00 – 14:00 / Arrateko Andiraon

SASOIKO SUKALDARITZA: ZER EGIN UDAZKENEKO NIRE BARAZKI-SASKIAREKIN -martitzenetan-

Guztira 10 ordu (urriak 10, 17, 24 eta 31, gaztelerez) / 17:00 – 19:30 / Andretxean

AUTOZAINZA EMOZIONALA -martitzenetan-

Guztira 10 ordu (urriak 17 eta 24; azaroak 7, 14 eta 31, gaztelerez) / 17:00 – 19:00 / Andretxean

BIZITZARAKO MINDFULNESS: AHALDUNTZE-TRESNA -eguetan (euskaraz) eta barixakuetan (gaztelerez)-

Guztira 15'45 ordu (urriak 19 eta 26; azaroak 2, 9, 16 eta 23; abenduak 14, euskaraz) / 17:00 – 19:15 / Andretxean (urriak 20 eta 27; azaroak 3, 10, 17 eta 24; abenduak 1, gaztelerez) / 16:30 – 18:15 / Andretxean

LURRETIK ZAINDU -eguetan-

Guztira 8 ordu (urriak 26; azaroak 2, 9 eta 16, gaztelerez) / 17:30 – 19:30 / Andretxean

ZIKLIKOKI BIZI TALDEAN -zapatuetan-

Guztira 4 ordu (azaroak 4, euskaraz) / 10:00 – 14:00 / Andretxean

AMATASUNA ETA AHALDUNTZEA -astelehenetan-

Guztira 8 ordu (azaroak 6, 13, 20 eta 27, gaztelerez) / 17:00 – 19:00 / Andretxean

OSASUNA PLAZERRA BADELAKO ELIKADURA OSASUNTZUAZ GOZATU -eguztinetan-

Guztira 12 ordu (azaroak 8, 15, 22 eta 29; abenduak 13, euskaraz) / 18:00 – 20:00 / Andretxean

BELAUNALDIEN ARTEKO AUTODEFENTSA FEMINISTA -zapatuetan (7-9 urte) eta domeketan (10-13 urte)-

Guztira 6 ordu (urriak 14 eta 21; urriak 15 eta 22, euskaraz) / 11:00 – 14:00 / Andretxean

AUTODEFENTSA FEMINISTA -zapatuan (14-18 urte)-

Guztira 6 ordu (urriak 28, euskaraz) / 10:00 – 13:00 eta 15:00 – 18:00 / Andretxean

AUTODEFENTSA FEMINISTA -zapatuan (18 urtetik gora)-

Guztira 8 ordu (azaroak 11, gaztelerez) / 10:00 – 14:00 eta 15:30 – 19:30 / Andretxean



Amatasuna & ahalduntzea

Amaitzeko boterea berreskuratu dugu, amatasunaren bide eraldatzaile horretan sostengatuak eta ulertuak sentitzeko. Aldaketez, desioez, gure gorputzen beharrez eta bikotekidearekin birformulatu beharreko harremanaz hitz egingo dugu. Amen arteko laguntza- eta komunitate-sareak sortuko ditugu.

Osasuna plazerra badelako

Osasunaz ari garenez, ikastaro honetan jaten dugunaren garrantziak eta elikagaiek nutrizionalki zein energetikoki eskaintzen digutenaz jardungo dugu. Horretarako elkarrekin jatekoak prestatzeari ekitea baino gauza hobirik ez da. Botere handia ematen digulako sukaldeko alkimia ezagutzeak.

Autodefentsa feminista

Autodefentsa feminista emakume gisa bizitzeko tresna bat da, bizi-jarrerara bat. Tailer honetan, gizarteak naturalizatutako eta normalizatutako erasoak identifikatzen ikasiko dugu, autodefentsa feministaren eta horien aurrean banaka eta taldeka erantzun bat garatzeko estrategien bidez.



EKHI BELAR

Begirada berria

Mundua begirada berriarekin ikusten dut orain dela aste batetik hona. Ez zait Ama birjina agertu (ama bai, eskerrik asko), begietatik operatu naute. 30 urte inguruko erdi-itsumena hamar minututan konponduta. Batzuetan aurrerapenak ez dira beranduegi heltzen.

Begiak egoera berrira ohitzen doaz oraindik, baina ni ere. Goizean, esnatzen naizenean, eskua mesanotxera eramaten dut eta segundu batzuk ematen ditut han eta hemen ukitzen betaurrekorik behar ez dudala konturatu arte.

Ez da erraza urte askotan zehar izan duzun ohitura batekin egun batetik bestera amaitzea. Denbora kontua da eta, normalean, ohitura berriak sortuz lagatzen dira zaharrak atzean.

Eibarren, ostera, urteak (hamarkadak?) daramatzagu egoera berrietara ohitu ezinik. Iragan oparoan itsu bizi den herria gara, batzuek iragan hori bizi izan ez baguenen ere. Horren oinordeko gara, bai, baina gaur egun, apaingarriak jarri arren, grisagoa da gure herria.

Gauza onetara ohitzea erraza dela diote, baina guk ez dugu protesta asko egin egoera kaxkarrago batera ohitzen joan garen arren. Beti eibartarrak izateaz harro. Zer gehiago behar dugu?

Hilero iristen diren langabezia datu kezkarrietara ohitu gara. Abuztuko datuen arabera, %11,84koa da Eibarko langabezia-tasa (ez dakit noiztik ez garen %10etik jaitsi), Debabarrenekoa %10,19koa eta EAEEKoa %7,4koa diren bitartean.

Ohitu gara ere inoiz herriko ikur izan diren eraikinak hutsik ikustera. Hor ditugu, besteak beste, fabrikak, Untzagako zinema eta, orain, herria salbatu behar zuen El Corte Inglesen kristalezko opari erraldoia. Ez da hori bezain eraikin huts ederragorik egongo.

Eta, atzera baino, aurrera begira jarriko bagina? Operatu arren, gure etorkizuna ez dudalako batere argi ikusten.

“Eibarren urteak daramatzagu egoera berrietara ohitu ezinik. Iragan oparoan itsu bizi den herria gara, batzuek iragan hori bizi izan ez baguenen ere”

Berbetan Jaialdia hartuko du Untzagak datorren asteko eguenean

Ikasturteari hasiera biribila emateko, eta azkeneko urteotako ohiturari jarraituz, Berbetan jaialdia antolatu du urriaren 5erako, eguena, ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Horrela emango diote hasiera ikasturte berriari Berbetan mintzapraktika-egitasmoak eta haren adarrek, Gurasoak Berbetan familia-giroa euskalduntzeko programak eta Ongietorri harrera eta elkarbizitzarakoak. Jaialdia arratsaldeko 17:00etatik 18:30era izango da Untzagan, harmailen aldean, eta 2tik 12 urtera arteko umeentzat puzgarriak eta taile-rrak egongo dira, doan.

Jaialdiarekin hasi aurretik egitasmoaren aurkezpena egingo da, eta horretarako “talde-argazki handia atera nahi dugu. Hori dela-eta, dei egiten diegu hiru egitasmoetako parte-hartzaileei, 16:45 inguru bertan egon daitezen, harmailetan argazkia ateratzeko”, diote ...eta kitto!-tik.

Datozen egunotan jarriko dira martxan hiru programak, egunotan zabalkundearekin dihardute elkarte-koek, baina baten batek infomazio gehiago nahi izanez gero edo zuzenean izena eman nahi badu, 943200918 telefonora deitu edo mezua bidali dezake hona: elkar-tea@etakitto.eus edo ongietorri@etakitto.eus

Eskaintza zabala Illunabarrian egitasmoaren barruan



...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Illunabarrian programak eskaintza oparoa prestatu du datozen asteotarako. Batetik, urriaren 17an eta 24an Gaba Beltzerako maskarak (umeentzat) eta “gore” makillajea (12 urtetik gorakoentzat) egiteko ikastaroak egingo dira elkartearen egoitzan. Izen-ematea urriaren 2tik 11ra izango da.

Bestetik, azaroaren 14an narruzko zorroak egiteko ikastaroa antolatuko du ...eta kitto!-k eta azaroaren 21ean, berriz, Oteizaren ingurukoa. Azkeneko horretan euskal artistaren artelanak erreproduzituiko dira. Izen-ematea aurrerago egingo da, urriaren 23tik azaroaren 9ra, zehazki. Informazio gehiagorako edo izena emateko deitu 943200918 telefonora edo idatzi elkar-tea@etakitto.eus helbidera. 5 euro balio du eta doakoa da ...eta kitto!ko bazkide eta berbalagunentzat.

B

ERBETAN JAIALDIA

**URRIAK 5
OSTEGUNA
UNTZAGAN
17:00-18:30**

Puzgarriak, jolasak...

“Plazeretik eta amorrutik jardungo dugu herria feminismoz betetzen eta salatu beharrekoa salatzen”

NALUA • Talde feminista



Nalua Eibarko talde feministak 10 urte bete ditu eta jaialdia prestatu du biharko data berezia ospatzeko. Horrela, bihar 12:30ean hasita, mota askotako ekintzak egingo dituzte Errebalean. “Eibarko feminista guztiak gonbidatuta daude urteurrenera!”, esan digute.

Nolako izan da Naluaren 10 urteko ibilbidea?

Ibilbide luzea izan da; gogorra batzuetan, baina, oro har, emankorra, oparoa eta plazerez betetako. Gogoan ditugu lehenengo bilerak. Ilusio handia genuen eta edo-zertarako prest geunden, helburu zehatz bezain potolo batekin: gure herria, Eibar, feministagoa bilakatzea. Horretarako, mobilizazioak, dokumentalak, zozketak, protokoloak, jaiak, hitzaldiak, topaketak, proiektzioak, kanpainak, performance-ak, musika jaialdiak eta beste hamaika egitasmo egin ditugu. Badakigu askotan zailtzan jarri direla gure ekimenak eta egiteko moduak –gogor kritikatu ere bai–, baina, atzera begira jarrita, oso harro gaude egin dugun guztiaz. Kritikotasunez jardun dugu, umoretik ere bai, originaltasunez... Pozik gaude eman dugunarekin, bidea samurra izan ez bada ere; horrek indarra ematen digu lanean jarraitzeko. Gainera, uste dugu herrian igarri dela mugimendu feminista aktiboa egon dela –eta dagoela–.

Herriak nola erantzun dio denbora honetan egin duenari?

Askotariko erantzunak jaso ditugu, baina beti jakin dugu feedback guztiei alde ona ikusten. Erantzun positiboek babestuta gaudela sentiarazten digute eta erantzun txarrekin, ostera, erakusten digute gauzak ondo egiten ari garela; izan ere, publiko konkretu bat haserrearaztea edo deseroso sentitzea bada zerbai-

ten seinale. Adibide batzuk jartzearen, eraso sexista edo homofobo bat jasan duen pertsona bat gurekin harremanetan jartzen denean, konturatzen gara urte hauetan erein dugula zerbait. Era berean, gizonen pribilegioetan jopuntua jartzen dugunean edota espazio ez-mistoak sortzen ditugunean, erantzun gogorak eta oldarkorrak iristen zaizkigu; eta hori ere bada erein-dakoaren uzta.

Denbora honetan, bidelagunak ere sortu dira, Matrak! kasu. Mugimendu feminista indartsu dago herrian? Talde, erakunde eta eragileen aldetik, nola ikusten duzue egoera?

Eskerrak bidelagunei! Eibarko emakumeen elkarte historikoak, sortu diren eragile feminista berriak, kultur arloko elkarteak, gazte mugimendua, eskualdeko eta Euskal Herriko talde feministak... Ondoan izan ditugu guztiak momenturen batean edo bestean, eta elkarlana funtsezkoa izan da Naluaren ibilbidean. Oso eskertuta gaude. Erakundeek, ostera, lagundu baino trabak jarri ohi dituzte: isunak, ukatutako baimenak, euren burua zurtzeko eskaera interesatuak... Horregatik erabaki zuen Naluak, besteak beste, autogestioaren bidea jarraitzea.

Nola bizi duzue urte hauetan mugimendu feministak gizartearen hartu duen indarra?

Lehenengo lerroan egonda izan gara mugimendu



Naluak ekintza ugari egin ditu Eibar feministagoa bilakatzeko helburuarekin. NALUA

feministaren indar erakustaldi handien lekuko. Naluaren lehenengo martxoaren 8an, photocall bat jarri genuen Untzaga plazan. “Feministak gara” zioen, eta lelo horrekin argazkia ateratzera animatu nahi genituen herritarrak. Askok esan ziguten beraiek ez zutela feminismoarekin bat egiten, hitz hori ez zitzaizela gustatzen, eta nahiago zutela “berdintasuna”. Ariketa polita izan zen gaur egun iritziz aldatu duten feminis-

ta askorentzat. Horretan lagundu zuen urte batzuk geroago, zehazki 2018ko martxoaren 8an, etorri zen inflexio puntu erraldoiak ere: mundu mailako greba feministak. Ikaragarria izan zen Eibarren ikusi genuena; gazte nahiz heldu elkartu ginen aldarrikapen eta hausnarketa interesgarriekin. Indar gehiagorekin egin zen 2019ko greba. Gero eta belaunaldi gazteagoak ikusi ditugu borroka feministaren olatuari heltzen, eta

| | | | |
|--|---|--|--|
|  |  | <p>URRIAK 17 (18:00 - 19:30) familiarentzat <i>maskarak</i></p> <p>URRIAK 24 (18:30 - 20:30) 12 urtetik gorakoentzat <i>gore makillajea</i></p> <p>...eta kitto! Euskara Elkartean (5 euro) INFORMAZIO GEHIAGO: 943200918 / elkartea@etakitto.eus</p> |  |
|  |  | | |
|  |  | | |
| GABA BELTZA TAILERRAK! | | | |

ziur helduen kontzientzian ere izan duela inpaktua... Halere, adi egon behar gara; izan ere, sistema anker honek badaki guk sortzen dizkiogun arrakalak baliatzen eta egoerari buelta ematen. Mugimendu feministaren diskurtsoak eraldatzen ditu kapitalismoak, eta egin ditugun aurrerapausoak erabiltzen ditu bere mesederako: multinazional handiek emakumeak eta haurrak esplotatzen dituzte lelo feministak dituzten kamisetak saltzeko; enpresetan emakumeak zigortzen dira zaintzarako baimenak eskatuz gero; kristalezko sabaiek edota inposatutako ereduak hor jarraitzen dute; eta bizitza sostengatzen duten zaintza-lanak gutxietsita eta erabat prekarizatuta daude, emakumeek, migratzaileek eta bazterretan daudenek egiten dituztelako. Ez gara gizarte berdinzale batean bizi; gehiengo zapaltzeari esker gutxi batzuen ongizatea nahi duen sistema da gurea. Eskuin-muturraren gorakada ere hor dago; urte luzez borrokatutako eskubideak kolokan egon daitezke une batetik bestera. Borrokan jarraitzea besterik ez dago.

Gaur egun, eta etorkizun laburrera begira, zeintzuk dira zuen helburu nagusiak?

Egia esanda, pandemia-egoerak lur jota utzi gintuen. Esango genuke, oro har, kalte handia egin duela herri mugimenduetan eta militantzian. Apurka-apurka ari gara indarra eta ilusioa berreskuratzen –eta aurtun 10 urte betetzeak eman digu bultzada–; horrenbestez, epe laburrera gure helburua erabateko aktibazioa lortzea da. Orain arte egin dugun moduan, plazeretik eta amorrutik jardungo dugu herria feminismoz betetzen eta salatu behar den guztia salatzen.

Azaroaren 30ean Greba Feminista deitu dute. Herrian ekintzak prestatuko dituzue?

Greba bat antolatzea eta abiatzea ez da lan makala, eta, gure kasuan, are gutxiago greba San Andres egunean izango dela kontuan hartuta. Erronka handia datorkigu eta Greba Batzordea lanean da dagoeneko. Bilera irekiak egiten ari gara, eta parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi dugu; denon aletxo beharko dugu oraingoan ere.

Borroka feministaz gain, umorea eta jai giroa bultzatu duzue eta, zentzu horretan, zapatuan 10. urteurrene-



“Gero eta belaunaldi gazteagoak ikusi ditugu borroka feministaren olatuari heldzen eta ziur helduen kontzientzian ere izan duela inpaktua”

ko jaialdia egingo duzue. Egitaraua zabala da, goize-tik gauera. Zer espero dezakegu?

Beti saiatu gara feminismoaz gozatzen eta gure ibilbidea goxatzen duten ekimenak antolatzen; borrokatzea askoz dibertigarriagoa da ondo pasatzen bada, –eta ziur eraginkorragoa ere badela–. Norbaitek esan zuen “jaila bai, borroka ere bai”, eta guk ere hori diogu: “Borroka bai, jaila ere bai”. 10 urte egin ditugu, eta hori ospatzeko da. Filosofia horri jarraiki –eta oztopoak oztopo– egitarau polita prestatu dugu; denetarik egongo da. Musika, ikuskizunak, ekitaldia, jolasak, zozketak...

Eibartik kanpo jokatu behar duzunean: puntualki izan bada errugbiaren kasuan, luzeagorakoa da waterpoloko lehen taldean

Alde batetik, azken denboraldian waterpoloko 2. Nazional mailara igotzea lortu zuen Urbat-Urkotronikeko lehen taldea dugu. Igoera lortzeko ere Leioako Askartza taldearen piletan jokatu behar izan zituen play-offeko partiduak eta orain, behin helburua eskuratuta, dagokion mailako partiduak Anoetako Pako Yoldi igerilekuan jokatuko ditu, "zapatuetan, 20:15ean hasita" Urbatetik diotenez.

Eibarko kluba Gipuzkoako lehenengo da estatuko maila horretara heltzen, aurretik Oiartzun Bidasoa, Urbat bera eta Donosti helburu hori betetzen saiatu eta gero. Taldea maila berriari eusten ahaleginduko da, hasita Kataluniako Badia del Vallesen jokatu duen partidutik. Waterpoloko estatuko hirugarren maila horretan jokatzeko, Eibarko taldeak herriko jokalariei eutsiko die batez ere, tartean izan arren Ohorezko Mailako Waterpolo Navarratik etorritako Mikel Basterrika eibartarra eta Waterpolo Donostitik datorren Ander Iñarra pasaitarra. Hor izango dira baita Mikel Recio soraluzetarra eta Gasteizko beste lau jokalarirenekin.

Urbatetik jakinarazi digutenez, "maila berri horretako partiduak jokatzeko igerilekuak 25x12'5 me-



Urbatekoek omenaldia jaso zuten 2. Nazional mailara igotzerakoan.

tro neurtu behar ditu, eta datorren urtetik aurrera 25x16. Orbea kiroldegikoak 25x10 neurtzen du. Gainera, graderioa ere behar da eta zati batean ez du sakontasun nahikorik". Hori bai, Urbateko beste talde guztiek Orbean jarraituko dute jokatzeko. Urbateko senior mailako bigarren taldeak, bestalde, orain Euskal Herriko Ligako 1. Mailan jardungo du.

Homologazio bidean

Eibar Rugbyko lehen taldea ere kasu berean izan da aurreko asteburuan jokatu duen FER Kopako lehen partiduan. Cristina Guntinek

zuzentzen duen estatuko maila gorenean jokatzeko duen taldeak Ordizian jokatu behar izan zuen neurketa hori, "nazio eta nazioarte mailetako partiduetarako Unbeko zelaiaren homologazio prozesua oraindik ez zelako amaitu". Iñaki Arrizabalaga klubeko presidentek esan digunez, "barixaku honetan dira etortzekoak berriro eta homologatuko digutela koan gaude. Baldintzak zertxobait estuagoak ipintzen dihardute, belar txarrak eta halakoak kentzeko aginduta, eta hori da kontu guztia. Orain arteko bidetik jarraituko dugu, ez da bestelako neurri berezirik behar".

Maila bat beherago jokatzeko duen Burgosko Pinguinas taldea izan zuten aurkari eibartarrek Ordizian, eta armaginak 27-19 nagusitu ziren. Urriaren 8an izango dute FER Kopako hurrengo partidua, hor ere Ohorezko B Mailako beste baten aurka, Unben: Getxo. Multzoko laugarren taldea Eibar Rugby-ren maila berean dagoen A Coruñaiko CRAT da. Bestalde, Liga azaroaren 12an hasiko da, eibartarrek Unben Sevillako Universitario txapelduna hartuta.



Eibar Rugby Taldekoek irabazi egin zuten Ordizian jokatu duen partiduan.

Gauetz izango da zapatutako Deporreko mendi taldeak antolatutako ibilbidea

Zapatutik domekarako gaueko ibilaldi berezi hori Elgoibarren hasi eta Urretxun amaituko da, tartean Irukurutzeta eta Irimoko gainak



Irimotik pasatuko dira azken tartean.

gaindituz. Parte-hartzaileek autobusa hartuko dute gaueko 22:00etan Ego Gaineko geltokian eta handik ordu erdira abiatuko dira Elgoibar-ko tren geltokitik. Itzulera, bestalde, Urretxutik egingo dute domeka goizean, 07:00 bueltan irtenda. 26 kilometroko ibilbidean, goraka metatutako desnibela 1.340 metrokoa da, eta beherakoa 1.055ekoa. Ibilbidean Karakatera (742 metro) igoko dira lehenengo, gero Irukurutzetara (898 m.) heltzeko, jarraian Elosuara joko dute, handik Gorrara, ondoren Trekutz zapalduko dute eta, Irimotik (855 m.) pasatu eta gero, Urretxura helduko dira. Ibilbidea gauetz egingo denez, parte-hartzaile guztiek kope-tako argia, linterna edo bestelako argiztapen gailua eraman beharko dute. Izena emateko, betiko lez, Klub Deportibora jo dezakezue.



J.L. Tueros golfean azpitxapeldun

Juan Luis Tueros eibartarrak bigarren postua eskuratu zuen aurreko zapatuan, Oñatiko Irelore Golf Eskolako zelaian jokaturako IX. Gipuzkoako Putch&Putt Golf txapelketa absolutuan.



Judoan jarduteko ikasturtea hasi dute Kalamua Klubean

Klase horiek Hegoi Estebanek eskaintzen ditu eta izena emateko 636494645 telefono zenbakira deitu daiteke edo, bestela, kalamuajudo@gmail.com helbidera idatzi. Esteban gerriko beltza da hainbat modalitatetan: 3. dana judoan eta 2. dana jiu-jitsu eta defentsa pertsonalean. Umeentzako zein helduentzako klaseak eskaintzen dira: "Umeentzako arlo formatzailean zein lehiakorrean, eta helduenean arlo ludikoan zein lehiakorrean". Kasu guztietan matrikula doan da.

Eibar FT-k bere harrobiko talde guztiak aurkeztu zituen aurreko astean

Aurreko astean Ipuruan egindako aurkezpenean, Eibar FT-k harrobiko hamabi taldeak aurkeztu zituen: euretako zortzi gizonen taldeak dira eta beste lauak emakumezkoenak. Talde horietan guztira 250 futbolari jokatzeko dute eta, Futbol Eskolakoak gehituta, 450 jokalariren multzoa osatzen dute. Aipaturako talde horietan jokatzeko duten erdia, %50, eibartarrak dira; Futbol Eskolakoak gehituta, kopuru hori %70era igotzen da. Eta guztiak kontuan hartuta, %80 probintziakoak dira, gipuzkoarrak.

Talde horien guztien lana aurrera ateratzeko teknikoaren kopurua 80ra iristen da. Aurrekoan zelaira-

tutako taldeetako entrenatzaileak honakoak dira: RFEF 3. mailako emakumezkoena, Ander Ojangueren; Probintziako Ohorezko Mailako Eibar Urkorena, Iñigo Perez; Euskal Ligako emakumezkoena, Sara Lombardero; jubeniletako Nazional Mailakoa, Jorge Davila; jubeniletako Ohorezko Mailakoa, Ian Uranga; kadeteetako Euskal Ligakoa, Nestor Orozko; kadeteetako Ohorezko Mailakoa, Ander Erize; kadete mailako emakumezkoena, Imanol Galera; infantil mailako emakumezkoena, Ane Diez; infantil Handi mailakoa, Ibon Hernando; eta infantil Txiki mailakoa, Iban Badiola.

Ipuruako gimnasten bi taldeak podiumean Anaitasuna 1. Kopan

Gure herriko gimnasia klubaren federatutako bi taldeek indartsu hasi dute denboraldia eta, horrela, aurreko domekan Iruñean jokatu-tako Anaitasuna 1. Kopan senior mailako taldea eta Oinarri Jubeniletakoa, biak sailkatu ziren 3. postuan eta podiumera igotzeko aukera izan zuten. Astebete lehenago, bestalde, bietatik gazteenak zilarra irabazi zuen Arabako gimnasia federazioak antolatutako Torneoan. Ipurukoek asteburu honetan Donostian izango dute hurrengo erronka, bertako Izar leku eta Donosti txapelketetan.



Egun 120 gimnastek osatzen dute Eibarko kluba, euretako 12k estatu mailako lehiaketetan hartzen dute parte eta beste guztiek amateur eta eskola mailetan. Federatuek aza-

roaren amaieran eta abenduaren erdialdean jokatu diren Espainiako txapelketei begira dihardute prestatzen. XXIII. San Andres Txapelketa urriaren 28an jokatu da.



Eibar Saskibaloiak 16 talde izango ditu denboraldi honetan, inoiz baino gehiago

Eibar Saskibaloia urtetik urtera hazten doa eta 2023-24 denboraldiari aurre egiteko 16 plantilletako taldea osatu du. Klubak, gainera, berrietasun garrantzitsuak izango ditu: horrela, emakumezkoetan senior mailako lehen taldeak hartuko du parte eta, horrez gain, gi-

zonezkoen Zilarrezko Ligan junior mailako taldea ere izango da lehian. Portalean aurreko astean izandako bileran, presidente karguan jarraitzen duen Enrique Benitezen klubaren eskutik jaso zituzten jokalariren gurasoek denboraldi berriaren inguruko nondik norakoak.



**Jesus Garagarza
Gurrutxaga "Txuti"**

4. URTEURRENA
2019/09/30

"Zu joan zara,
baina zureganako
gure maitasuna ez"

EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO
- ETXEKOAK -





**Jose Perez Cid
"El Tigre de Amaña"**

2023/09/21

**Eibarko
boxeo zaleok
ez zaitugu
inoiz ahaztuko**

- ZUREKIN BETI -





Amagandik Edoskitzearen VIII. argazki-lehiaketa

Urtero bezala, aurten ere Amagandik Edoskitzearen VIII. argazki-lehiaketa antolatu du Debabarreneko ESI-k. Argazki-lehiaketara aurkezten diren argazkiak originalak eta berriak izango dira, eta parte-hartzaileek hiruna argazki aurkezteko aukera izango dute. Argazkiak koloretan edo zuri-beltzean izan daitezke eta BPSO.OSIDEBABARRENA@osakidetza.eus helbidera bidali beharko dira (informazio gehiagorako ere bertara idatzi daiteke). Epea zabalik dago, azaroaren 13ra arte. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, parte-hartzaile bakoitzak bere argazkiei inskripzio dokumentua eta irudia bildu eta zabaltzeko baimena erantsi beharko die. Irabazten duen argazkiari saria emango zaio, abenduan Mendaroko Ospitalean ospatuko den ekitaldian.



Pagatxaren bideo-forum saioa egingo da Andretxean

Pagatxa Emakumeen Elkarteak, Eibarko Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren laguntzarekin antolatzen duen *Emakumeak Historia Egiten* egitasmoko bideo-forum saio berria egingo da urriaren 9an, 18:30ean Andretxean. Korrika egiten duten emakumeak izango dira saio horretako protagonistak.



Legarreko parkeak EMGE Fest hartuko du bihar

Bihar arratsalde-gauean egingo da EMGE Fest musika jaialdia, Legarreko musika lokalen gaineko parkean. Aurtengo kartela David Karbak, Markos Untzetak, Zapatu Beltzak, Gorka Beatok, Eibar Opina DJ-k eta Judas Argaratek osatzen dute, baina azken talde horren kontzertua bertan behera laga behar izan dute, azken orduko aldaketak tartean. Hala ere, beste talde batek joko du haien ordeaz. Kontzertua emango dutenen artean denetarik dago: folk-rock-pop estiloko musika, elektronikoa, metala... Jaialdia arratsaldeko 16:00 aldera hasi eta 23:00etan amaituko da. Bestalde, bakoitzak noiz joko duen zehazteke dago, baina antolatzaileek aurreratu digutenez, azken kontzertua Black Sabbath taldearen kantuak jotzen dituen Zapatu Beltzak emango du.



“Todas las hijas” antzezlanaren taularatuko dute gaur

“Todas las hijas” antzezlanaren aurkeztuko du gaur Erre Produkzioak taldeak, 19:00etan Coliseon. Ane Gabarain, Gemma Martinez, Maribel Salas, Sol Maguna eta Vito Rogado dira Andres Limaren zuzendaritzapean arituko diren antzezleak. Sarrerak 12 euro balio du (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin).



Thorbjorn Risager & The Black Tornado zuzenean

Urriaren 8an itzuliko dira Musika Klubaren kontzertuak, Danimarkatik datorren Thorbjorn Risager & The Black Tornado taldearekin. Coliseon izango da kontzertua, 19:00etan. Antolatzaileen arabera, “daniar proiektu honek jendetza erakarri du toki guztietan”, besteak beste eszenatokian mugitzeko duten moduarengatik. Eta horri soul, Chicagoko bluesa, boogie eta rock ‘n’ rolla eta Ray Charles, Van Morrison eta Billy Gibbons elkartzen dituen ahotsarekin uztartzen dituen soinua gehitu behar zaio. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Familia osoak disfrutatzeko moduko magia-saioa

Sun Magoak “Houdini, el Mago del Club” izeneko saioa eskainiko du urriaren 7an, 19:00etan, Coliseo antzokian. Emozioaren eta umorearen artean dagoen ikuskizuna izango da, familia osoak ondo pasatzeko modukoa. Ilusioen barrena egingo duen bidaiari ez dira faltako ezinezko enigmak, agerpen eta desagertzen misterioitsuak eta, nola ez, erakustaldi liluragarria, ur-tanketik ihesa. Sarrerak 7 euro balio du (5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Domekan itxiko dute “Tailerretik bulegora”

Domekan itxiko dute Eibarko Armagintzaren Museoan ikusgai dagoen “Tailerretik bulegora. Eibarko produktuak” erakusketa. Museoako bildumatik atera eta ikusgai ipini dituzten produktu guztiak gure herrian egindakoak dira, bisitariek Eibarko industriak sasoi batean izan zuen aniztasuna ikus dezaten. Sarrera doan da. Museoak aldi baterako zabalduko duen hurrengo erakusketa Jose Zugasti eibartarraren “Txirindularia” izenekoa izango da, urriaren 20an. Artea, txirindularitza eta Eibarko industria batuko dituen obra datorren urteko otsailera arte egongo da zabalik.

“Ulisesen Jokoak” urriaren 14an



Odisea Elkartearen eskutik “Ulisesen Jokoak” jardunaldiaren bigarren edizioa egingo da urriaren 14an, Errebal Plazan. Aurrekoan bezala, ludoteka, txapelketak, erakustaldiak eta zozketak antolatu dituzte, goizetik hasi eta iluntzeraino. Informazio guztia elkarrearen webgunean ikus daiteke.

Bost kontzertu bihar Gaztetzian

Bost musika talde arituko dira zuzenean Eibarko Gaztetzian bihar, 20:00etatik aurrera. Sweet Rage, Orihen, Aiama, The Red Army eta Nukore dira kontzertua eskainiko duten taldeak eta horiek ikusteko sarre-
rak 6 euro balio du.





AURKITU 10 DESBERDINTASUNAK

**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**



LOTUIZU JABE BAKOITZA BERE TXAKURRAREKIN

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 | | |
| | | 1 | | 5 | 2 | 6 | | |
| 7 | 2 | 5 | 8 | | | | | |
| 9 | | 8 | | 4 | | 7 | 3 | |
| | | | | | | | | |
| 3 | 4 | | | 7 | 2 | | 5 | |
| | | | | | 4 | 3 | 5 | 7 |
| 1 | 3 | | 6 | | | 4 | | |
| 5 | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z |
| B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A |
| C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B |
| D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C |
| E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D |
| F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E |
| G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F |
| H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G |
| I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H |
| J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I |
| K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J |
| L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K |
| M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L |
| N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M |
| O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N |
| P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O |
| Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P |
| R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q |
| S | T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R |
| T | U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S |
| U | V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T |
| V | W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U |
| W | X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V |
| X | Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W |
| Y | Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X |
| Z | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y |

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 8 | 6 | | 2 | 7 | | | |
| 5 | | 7 | | | 4 | | 9 | |
| | | | | | 6 | | | 1 |
| | | | | 6 | | | 3 | 2 |
| | | 8 | | | | 9 | | |
| 2 | 4 | | | 9 | | | | |
| 1 | | | 6 | | | | | |
| | 6 | | 7 | | | 3 | | 9 |
| | | | 5 | 8 | | 1 | 6 | |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 1 | 0 | 9 | 8 | 7 | 6 | 5 | 4 | 3 | 2 |
| 2 | 9 | 0 | 8 | 7 | 6 | 5 | 4 | 3 | 2 |
| 3 | 8 | 9 | 0 | 7 | 6 | 5 | 4 | 3 | 2 |
| 4 | 7 | 8 | 9 | 0 | 6 | 5 | 4 | 3 | 2 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 0 | 4 | 3 | 2 | 1 |
| 6 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 0 | 2 | 1 | 0 |
| 7 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 0 | 1 | 0 |
| 8 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 0 | 1 |
| 9 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 0 |

soluzioa

Irailak 29 / Urriak 5

BARIXAKUA 29

AGINAGAKO JAIK

11:00 San Miguel eguna. Meza nagusia, Usartza txistulari taldearekin eta Koro Parrokialarekin.
12:00 Hamarretakoa eta umeendako jolasak.
14:30 Herri-bazkaria. Aginaga auzoa.

ANTZERKIA

19:00 "Todas las hijas" (Erre Produktzioak). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



BERTSO JAIALDIA

22:00 Bertso jaialdi musikatu. Bertsolariak: Miren Artetxe, Jokin Bergara, Beñat Gaztelumendi, Ane Labaka. Gai-jartzailea: Ainhoa Urien. Musikiariak: Garikoitz Otamendi, Ixak Arruti. Errebal Plaza.




ZAPATUA 30

10. URTEURRENA

12:30 Nalua Eibarko talde feministaren 10. urteurrena. Pintxada&Marianito. DJ Maribel.
14:00 Tortilleo.
16:00 Albina Stardust & Divina Comedia.
18:00 Urteurren-ekitaldia.
18:30 Mamarratxaldea (purpurina, zozketak, mertxan, jolasak...). Errebal Plaza.
19:00 Elektropottotte.
21:30 Eta gero... gerokuak. DJ-ak Guridin.

EMGE FEST

16:00/23:00 Kontzertuak: Beato, David Karba, Markos Untzeta, Eibar Opina DJ, Zapatu Beltza. Legarri (musika lokalen gaineko parkea).



MUSIKA

20:00 Kontzertuak: Sweet Rage, Orihen, Aiama, The Red Army, Nukore. 6 euro. Eibarko Gaztetxia.

DOMEKA 1

ASTEKLIMA

09:30 "Gure basoak eta aldaketa klimatikoa" interpretazio-ibilbidea. Santa Kurutzeko ermitatik abiatuta.

ASTELEHENA 2

PLONECONF 2023

09:00/13:00 & 14:00/18:00 Formakuntza ikastaroak. Markeskua.

PENTSIODUNAK

12:00 Urriaren Lehena Nagusien Nazioarteko Eguna dela eta, manifestazioa, Eibarko Pensionisten Taldeak deituta. Untzaga.



AITORTZA

16:30 Beistegui Hermanos (BH) eraikinari eta hori egin zuen Ramon Martiarena Laskurain arkitektoari omenaldia, Docomomo Iberico-ren eskutik. Plaka-oroigarria ipini eta Kezka taldeak dantzatu egingo du. Arragueta, 20.



MARTITZENA 3

PLONECONF 2023

09:00/13:00 & 14:00/18:00 Nazioarteko Konferentzia Teknologikoa. Formakuntza ikastaroak. Markeskua.

EGUAZTENA 4

PLONECONF 2023

09:00/18:00 Nazioarteko Konferentzia Teknologikoa. Hitzaldiak. Coliseo.

BILERA IREKIA

19:00/20:00 Ipuurako Merkatu Plazan.

EGUENA 5

PLONECONF 2023

09:00/18:00 Nazioarteko Konferentzia Teknologikoa. Hitzaldiak. Coliseo.

BERBETAN

17:00 Berbetan jaialdia eta aurkezpena. Untzaga.

ERAKUSKETAK

Irailaren 30era arte:

- **JOSE LUIS GARCIA DE MADINABEITIA**ren argazkiak. (Klub Deportiboa).
 - **TXEMA ARTETXE**ren argazkiak: "Bosque Mágico San Leonardo" (Portalea taberna).

Urriaren 1era arte:

- **"TAILERRETIK BULEGORA. EIBARKO PRODUKTUAK"**. (Armagintzaren Museoa).

Urriaren 8ra arte:

- **"Memorias de un estallido"** **DANIELA AGUDELO PINTADO**ren argazkiak. (Untzaga Zentro Soziala).

Urriaren 22ra arte:

- **"ZERGATIK? HARGATIK!"**. (Portalea).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **30ean:** 19:45, 22:30
- **1ean:** 20:00
- **2an:** 19:30

“Verano en rojo”
THRILLER-A



2023/Espainia/101'
Zuzendaria: Belen Macias
Aktoreak: Maria Nieto,
Jose Coronado, Luis Callejo
Poliziaokoa/Erljioia

2 ARETOA

- **30ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **1ean:** 17:00, 20:00
- **2an:** 19:30

“Vida perra”
KOMEDIA



2023/AEB/93'
Zuzendaria: Josh Greenbaum
Aktoreak: Will Ferrell,
Jamie Foxx, Will Forte
Txakur eta otsoak/Animazioa

ANTZOKIA

- **30ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **1ean:** 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- **2an:** 19:30

“La voz del Sol”
DRAMA



2023/Espainia/94'
Zuzendaria: Carol Polakoff
Aktoreak: Carmen Machi,
Karra Elejalde, Alicia Lobo
60. hamarkada/Gertatutakoa

ANTZOKIA

- **30ean:** 17:00
- **1ean:** 17:00

“El reino de Terracota”
ANIMAZIOA



2021/Txina/111'
Zuzendaria: Leon Ding
Fantastikoa/Abenturak



eskolara buelta!

elite

ISASI kalea, 29

BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK
KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

EQUIPAMIENTO DE OFICINAS 943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es

Eskola-materiala,
papertegia, motxilak,
idazmahaiak, aulkiak...

FUNEUSKADI
Eragin Auzoak



TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak



TANATORIO ERREKATORIO

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funuskadi.com

| | |
|---|---|
| <p>Eibar: Gtaola, 27</p> <p>Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p> | <p>Elgoibar: Xixilon, 1/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p> |
|---|---|

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



merchandising

serigrafia

lanerako erropa

www.publiresa.com

publiresa@publiresa.com

943 701 497 / 615 799 419

Amagin, 3-5 behea



**Zure publizitatea
herriko aldizkarian**

688 621 535

publizitatea@etaktio.eus

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **JAREtxo!** Eguaztenian 6 urte bete zenduazena-eta! Musu potolo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Maddiren partez.



Zorionak, **AIUR!** Astelehenian 4 urte bete zenduazena-eta! Patxo eder bat famelixa guztiaren eta, batez be, Maddiren partez!



Zorionak, **MALEN,** urriaren 5ian 2 urtetxo beteko dozuz-eta! Ondo pasa! Patxo erraldoi bat famelixa-kuen eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak, **URKO,** domekan 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat maitte zaittugunon partetik.



Zorionak, **NOA,** hillaren 26xan 10 urte bete zenduazena-eta. Musu bat Luka, Danel, Aner eta aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, **BIDANE!** Hillaren 27xan urtetxua bete dozu-eta. Besarkada eta patxo haundi bat famelixaren partez!



Zorionak, **PELLO!** Bixar 9 urte potolo beteko dozuz-eta!! Jarraitu hain alai eta jator!! Patxo haundi bat Txomin eta Elixeren partez.



Zorionak, **MADDI!** Etxeko txiki haundixak gaur 11 urte betetzen dittu-eta. Patxua famelixa guztiaren eta, bereziki, Ekhi-ren partez.



Zorionak, **MARINA,** urriaren 2xan urtiak beteko dozuz-eta. Asko maite zaittugu. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **KOIKILLI.** Ondo ospatu zure eguna, famelixa eta lagunekin. Asko maite zaittugu!



Zorionak, **JUNE** (abuztuaren 26xan 11 urte) eta **ELENE** (irailaren 27xan 9 urte). Musu haundi bana famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **BEÑAT** eta **AIORA!!!** Patxo potolo bana famelixa guztiaren partez.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Eibarko erdigunean. Guztiz berritua eta argitsua. Balkoia, 3 logela eta igogailuarekin. 634430647.

1.2. Errentan

- Mutil batek logela bilatzen du Elgoibar edo Mendaran. 604201186.
- Pisua alokagai Eibarko erdi aldean. 943031363.
- Pisua alokagai Legarre-Gain kalean. 3 logela. Berriztua. Eguzkitsua. Igogailua. 675702473.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garajea itxia alokagai San Pion. Zabala eta sarrera onarekin. 652775746.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko goizez. 602800266.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin). Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean edo gauez ere. 632844780
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean edo gauez ere. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da andrak zaintzeko (tituluarekin), baita umeak ere eta garbiketarak egiteko. 612223075.

- Gizonezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta peoi bezala. 604220024.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 722408667.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. Esperientzia. 638083826.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.
- Neska eskaintzen da gauez nagusiak zaintzeko. 604986450.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Externa. 631159373.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. 614242172.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 632881068.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pintore edo peoi lanak egiteko. 632881068.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Baita gauez eta jai-egunetan. 631425686.
- Emakume euskalduna eskaintzen da zainketa lanetarako (agiri sozio-sanitarioa) eta etxeko lanak egiteko. Baita orduka ere. Kotxearekin. 657794652.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Ego Gain kaleko Bakoleku tabernan. Bertan galdetu (astelehene-tan ezik).
- Eibarko akademia batek eskara eta ingelesa maila altuko irakaslea behar du LHko partikularrak emateko. Bidali CVa: info@itzamna.eus

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskerak

- Neska behar da 2. DBHko ikasle bati etxean partikularrak emateko arratsaldez (17:00-18:00). 624231204. Hassan.

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.



Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

EIBAR / DURANGO ABENDUKO DEIALDIA

MATRIKULA EPEA Urriaren 2tik 20ra arte

| AZTERKETA | DATA | PREZIOA |
|---------------------|---|----------|
| <i>PET FS</i> | Abenduak 16 (<i>larunbata</i>) azterketa osoa | 100 euro |
| <i>FCE FS</i> | Abenduak 16 (<i>larunbata</i>) azterketa osoa | 190 euro |
| <i>CAE</i> | Abenduak 16 (<i>larunbata</i>) azterketa osoa | 198 euro |

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

ARRASATE: Parlance (943 77 06 83) / Idiomaster (943 79 07 84) **BERGARA:** Espolon School (943 76 03 53)
EIBAR: Link Idiomas (943 20 39 59) / Target Schools of English (607 83 36 13)
ERMUA: Akerlei (943 17 66 32) / Eremu Zentrua (688 69 84 70) **ELGOIBAR:** Key (943 74 30 44) / ILS (943 74 40 40)
ONATE: Sounds Great (648 26 82 06) / Academia GU (943 78 26 92)
DEBA: English Square (943 19 16 79) / North Street English (652 44 86 46)
DURANGO: San Jose Maristak (94 681 00 58) / Ikastola Ibaizabal (94 621 58 77)
MARKINA: Lea Artibai Ikastetxea (94 616 90 02) / Zubialde Akademia (688 64 39 13)
ELORRIO: Ontrack Hizkuntza (94 658 46 73) / Academia Mein (94 658 20 77) **BERRIZ:** Speak up (94 622 52 94)
MUTRIKU: Gogoz (943 60 43 58) / Academia Melissa (943 60 46 49)

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
 Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
 Tel. 943 20 41 94
 Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
 Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
 Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
 Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua

Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

EGOGAIN BERRI

- EIBAR -



AZKEN ETXEBIZITZAK SALGAI

Bisitatu etxebizitza pilotua

Irailaren 29 eta 30ean ate irekien jardunaldia

INFORMA ZAITEZ

Foru Posealekua I. 20005

T. 943 543 543

Donostia (Gipuzkoa)

www.egogainberri.com


AMENABAR


grupo eibar
INMOBILIARIA